

2021eko maiatzak 10eko aktan jasotakoa

Kontakizun poliedrikoa

Aurrekoan bidalitako sarrera zirriborroa berreskuratzen dugu. Berriz ere irakurri ondoren, bertaratutakoaren artean aho batez onartzen da. Beraz, horrela geldituko da:

“Kontakizun Poliedrikoetan foro kide bakoitzak, bere ibilbidea adierazi du eta gertatutakoaren bere irakurketa pertsonala egin du.

Forokideen izen abizenak.....

Gure hitzen ardua guztia hartzen dugu eta hau partekatuz dokumentu hau publikoa egiterakoan idazkiak sinatzea edo ez sinatzea hartzeko erabakia norberak askatasunez hartzea adostu dugu, bai eta hautu bakoitza hartzeko izan ditugun arrazoiak jasotzea ere.

Sinatzea hautatu dugunok, idazki pertsonala izanik, gurea eta ez beste inorena dela argi adierazteari garrantzia eman diogu.

Ez sinatzea hautatu dugunok garrantzia eman diogu: taldearen koralitatea adierazteari, hau da, taldearen aniztasuna irudikatzeari; izenik ez jartzeak aurre iritzirik gabeko irakurketa erraztu dezakeela; irakurleak gure kontakizuneko zenbait pasarteekin identifikatzen diren neurrian kontakizuna ez dela soilik gurea sentitzen dugula. “